

ESTALPEAREN INGURUAN HAUSNARTZEKO 1. BILERA**Akta**

Bileraren xehetasunak	Dinamizazioa
<p><u>Gaia:</u> Anoetan estalpe baten beharraren inguruan hausnartzeko parte hartze prozesuko lehenengo bilera.</p> <p><u>Hitzordua:</u> Urriak 27, 11tan Udaletxean.</p>	<p><u>Parte hartzaile kopurua:</u> 14</p> <p><u>Aztikerreko dinamizatzailleak:</u> Susana Martinez eta Maitane Zaldibar</p>



1- ONGI ETORRIA

Alkateak ongi etorria eman die parte hartzaileei eta herrian Estalpe bat jartzeko aukeraren inguruan hausnartzeko partaidetza prozesu bat jarri dela abian azaldu du.

Jarraian, Aztikerreko kideei eman die hitza eta hauek prozesuaren xehetasunak azaldu dituzte. Batetik, estalpearen kokapena eta ezaugarrien inguruko eztabaida eta erabakia kontsentsuz emango dela adierazi dute, eta horretarako lehenik hausnarketa indibiduala bideratuko dela eta bigarrenik bakoitzak banaka egindako hausnarketa hori taldean konpartituko dela hausnarketa kolektiboa bideratu eta ideiak konpartitu eta osatzeko.

2- ARIKETAK



a. **Fitxa bidez norbanako ariketa**

Parte hartzaileei fitxa bat banatu zaie eta norbanako ariketa izan da. Jarraian ageri dena, parte hartzaileek euren fitxetan idatzitakoa da:

- **Anoetan aterpea behar dugu?** Honen inguruan kontsentsua dago, nahiz eta partaide batek hasiera batean horren inguruko beharrik ez zegoela esan duen.
- **Zertarako? Zein da egun hutsunea?**
 - o Ekitaldietarako aterpe bat edukitzeko. Eguraldi txarreko egunetan aprobetxatzeko (jolaserako, kirolerako,...)
 - o Herrian dauden zenbait ekintza burutu ditezke bertan. Ume eta gaztetxoei euria dagoenean, frontoia, liburutegiaz aparte eskaintzeko.
 - o Eguraldi txarrarekin, ez dugu non pasa. Ume txikiak 1-12 urterako atsaldeko 2-3 ordu.
 - o Ekintza puntualetarako B plana izateko.
 - o Ekintza desberdinak egiteko eguraldiaz kezkatu gabe.
 - o Aterperik gabe aurrera atera ezin diren jarduerak burutzeko.
- **Nolakoa? Ezaugarri nagusiak**
 - o Paretik gabea bada ere, altua eta handia.
 - o Irekia izan leike, kontua da aterpea behar degula.
 - o Herrigunean kokatua, euritik babestua, itxia izateko aukera emango duena.
 - o Irekia eta isteko aukeraz
 - o Jardueren araberakoa.
- **Balizko erabiltzaile edo onuradun nagusiak**
 - o Herritar guztiak herriko ekitaldietarako. Haurrak jolasteko. Gazteak kirolerako.
 - o Herritarrak orokorrean.
 - o Nire partetik: 2-4 urteko
 - o Herriko eragileak edo taldeak.
 - o Edozein herritar talde.
 - o Herritarrak.
- **Besterik**
 - o Herrian dauden lokalak ze erabilera duten jakingo nuke

b. Taldean konpartitu

Herritarrak bi taldetan banatu dira eta bertan bakoitzak paperean idatzitakoa konpartitu du gainontzeko taldekideekin batera. Parte hartzaile guztiek esandakoa paper handi batean jaso da, eta denen artean ondorio orokor batzuk atera dira.



ONDORIO NAGUSIAK

- Herrian frontoiaz gain estalpe bat beharrezkoa da. Zenbaitetan frontoia txikia geratzen da, eta espazio zabalago bat behar dela ikusten dute herritarrek.
- Honen erabilerari dagokionez, umeez urte osoan zehar erabiltzeko espazio bat irudikatzen dute batzuek, horretaz gain, helduek ere erabili dezaketen espazio bat izan daitekeela aipatu da. Beraz, euria zein eguzkia egiten duenean babesteko erabilgarria izatea nahi da, eta herrian egiten diren ekintzak eguraldiak baldintzatuta ez egoteko eta frontoian egin behar ez izateko baliagarria izango da estalpea. Horretaz gain, umeez jolaserako erabili ahal izango dute ere.
- Gaur egun dauden espazioak: Liburutegia (saturatuta dago eta deskongestionatu behar da), frontoia, plazako aterpea, auditorioa, kiroldegia, ikastola. Hala ere, estalpeari eskatzen zaizkion funtzioak espazio hauek ez dituztela betetzen uste da.
- Ezaugarriari dagokienez, alboetatik estalia ez dagoen espazio bat irudikatzen da (eta behar izan ezkerreko plastiko batekin edo itxiko litzateke). Plaza zatitzen ez duena, eta inguruarekin harmonikoa dena, plaza hipotekatzen ez duena. Hau da, material naturalekin egindakoa eta herriko estetikarekin bat egiten duena.

c. Kokapena

Amaitzeko, parte hartzaileak bi taldetan banatu dira berriz, eta Anoetako argazki baten gainean eskatu zaie estalpea non kokatuko luketen adierazteko. Urdinean lehenengo kokapen aukera jarri eta berdean bigarren aukera adierazteko eskatu da.

Aztikerreko kideak arduratu dira herritarrek esaten zutena mapan kokatzeaz.





ONDORIO NAGUSIAK

Kontsentsu gehien duen kokalekua, elizako aterpetik plazaren beste aldera doan espazioa da. Futbol zelaiaren ingurua ez dagoela ondo aprobetxatua ere adierazi da, eta inguru horretan zerbait gehiago egin daitekeela. Hala ere, espazio hori estaltzen bada, estalpeak bete beharko lituzkeen aurretik esandako baldintzak ez dituela betetzen ere esan da.

Elizaren atzeko aldea ere aipatu da, baina soilik parkean dagoen jendearentzat izango litzateke baliagarria eta honek ere, ez ditu aurretik aipatutako baldintzak betetzen.

Elizako aterpearen ondoan dagoen parkinga ere aukera bezala planteatu da, baina hau txiki geratu daitekeela esan da.

Azkenik, elizako aterpea irekitzearen inguruan hitz egin da, hau espazio zabal bat baita eta bertan umeei jolastu ahal izango lukete. Espazio hau eserita jolastu ahal izateko toki aproposa dela ikusten dute herritarrek.

d. Saioaren balorazioa

Parte hartzaileei saioaren balorazioa egiteko eskatu zaie, eta oso ondo baloratu da.

Parte hartzaile batzuek beste herritarrekin iritziak konpartitu ostean hasieran zuten ideia aldatu dutela adierazi dute eta oso ondo baloratu da ideiak konpartitu izana, iritziak nolabait zabaltzen lagundu duelako eta denon artean egon delako estalpea non kokatu nahi den hausnartzeko aukera.

3- HURRENGO BILERA

Hurrengo bilerarako data, Azaroak 14, 18:30 Udaletxeko pleno aretoan.



MILA ESKER PARTE HARTZEAGATIK!